



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2021EKO URRIAREN 27AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

34. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita bateko urriaren 27an, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Angel M^a Etxeberria Iburguren J. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.

2021eko irailaren 29ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:



Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021eko irailaren 29an egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

2.- AZKOITIKO BANDERA OFIZIALAREN HASIERAKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA

GAIA: AZKOITIKO BANDERA OFIZIALAREN ONARPENA

IKUSIRIK

Azkoitiko Udalak bere ezku ofiziala onartu zuen, 1989ko martxoaren 16ko osoko bilkuraren erabakiaren bitartez.

Dena den, oraindano ez du bandera ofizialik onartu, bandera ofizialaren ezaugarrien inguruko zantzurik ez zuelako. Hori dela eta, Udalak bandera gisa kolore zuriko trapuaren gainean ezkutua jarri izan du.

Baina, Juan Bautista Mendizabal jaunak, Azkoitiko Kronista Ofizial eta udal honetako zinegotziak, 2021eko maiatzaren 31an aurkeztutako txostenean, adierazi du Udal Artxiboan jasotako 1519. urteko “memorial e inventario de los privilegios y escrituras halladas en el concejo de la villa de Azcoitia, así como pesas, medidas y otros objetos” dokumentuan Azkoitiko banderaren deskribapena aurkitu duela, honakoa:

“bandera, que es de lienzo de bocarán, colorada, con su bordadura”

Deskribapen honen arabera, Azkoitiko banderaren kolorea gorria da.

Aipatu txostenak honakoa dio:

“AZKOITIKO BANDERA OFIZIALA



2024an, Hiribildu gisa eratu zeneko 700. urteurrena ospatuko du Azkoitiak. Ospakizun horri begira, eta bere sinboloen katalogo ofiziala osatuz, Udalak erabaki du bandera bat diseinatzea eta ofizial egitea, mendeetan zehar landuriko Hiribilduaren balioak eta nortasun ezaugarriak erakutsiko dituena.

Jada 1988an, erakunde honek udal armarrria normalizatu nahi izan zuen, hainbat bertsio zeudelako, batez ere koloreen erabilerari zegokionez. Helburu horrekin, Udalak, kultura zinegotziaren bidez, bilera bat izan zuen Kronista eta Arma Errege Vicente Cadenas y Vicent jaunarekin. Kasu horietarako espezialista titularrak ondorengo ikerketa eta proposamena bidali zuen, eta Azkoitiko udalbatzak aho batez onartu zuen 1989ko martxoaren 16an. Udalbatza berean onartu zen, Euskaltzaindiaren proposamenari jarraituz, "Azkoitia, Hiri prestu eta Leiala" testuari dagozkion tituluak erabiltzea.

Hau da udalbatzak onartu zuen armarrriaren deskribapena:

"Gorri bizen eremuan, almenadun urrezko gaztelu bat (tradizioz hiru dorrerekin), urdinez argitua. Osagarri gisa urrezko bi granada, zerrenda gorriarekin, eta zurtoin eta hosto berdeak; zurtoinak armarrriaren puntan gurutzatzen dira.

Gipuzkoako Probintziako Azkoitiko Udal Txit Gorenaren Armarrriari koroa bat ezarriko zaio gainean intsignia gisa..."

Banderari dagokionez, berriz, haren deskribapenik zaharrena aurkitu dugu Azkoitiko Udal Artxiboan gordetako dokumentazio historikoan begiratuta. **"Memorial e inventario de los privilegios y escrituras halladas en el concejo de la villa de Azcoitia, así como pesas, medidas y otros objetos"** izeneko dokumentazioa da, Azkoitian datatua, 1519ko urriaren 20an, Juan Pérez de Umansoro eskribauaren testigantza bidez, Miguel Ybañez de Ynsausti alkate zela¹.

Dokumentuaren 10. aurreko orrian, eta lehenengo lerroan, hau irakur daiteke:

Más la bandera, que es de lienzo de bocarán², colorada³, con su bordadura.

¹ Azkoitiko Udal Artxiboa. 2 Katalogo zenbakia. 5 paper sorta, 1. zk.

² Bocarán izeneko oihala kolorezko harizko oihala da, holandilla deitua baino lodiagoa eta latzagoa. Alfauk honela identifikatzen du: "lihozko edo kotoizko ehuna, oso fina, Bokaran fabrikatua, eta hortik dator bere izena... Lihozko ehun garestienetakoa eta preziatuenetakoa bihurtu zen, baina XIV. mendean hondatu eta kotoizko ehun arrunt bilakatu zen, eta geroago, berriz, ehun zakarra, kalamu gomaztatuz eta prentsatzuz egin eta hainbat koloretan tindatua. Gaur egun ere erabiltzen da oraindik kapelen armaduretan; ingelesez "buckram" izenarekin deitzen zaio, eta espainolez frantsesezko "linon" izenetik eratorritako izenarekin".

Bukhara edo Bujará Uzbekistaneko hiri bat da, Asian.

³ "Kolore gorriari" dagokionez, Nafarroako Erreinuaren bandera dakar gogora. Iruñeko Udaleko Akten lehenengo liburuko XVI. mendeko deskribapen batean,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Are gehiago, 1599ko beste dokumentu batean, Udalaren ondasunen inbentarioa egiten duenean, hau aipatzen da: “la bandera de la villa, con su borla⁴ de seda”⁵

Gainera, banderak gorbataren bat⁶ ere bazeraman, urrezko edo zilarrezko bordatu edo apaingarria duten banda edo zinta batzuk; horiek, lazo edo korapilo labur batekin eta puntetan zeharreko erorkerarekin, haren lepoan jartzen dira ohorezko intsignia gisa.

Badirudi bandera honen memoria duela urte asko desagertu zela, eta haren ordezkari zuri xume bat erabili zutela udal armarrira eramateko; beste udal askok era gauza bera egiten zuten, ospakizun zibil eta erlijiosoetara joateko. Aurkikuntza hau oso berezia da, gisa honetako banderen deskribapenak topatzea zaila delako.

Aurkezten dugun proposamena da antzinako Azkoitiko banderaren kolorea berreskuratzea, gure herrian izan zen benetako tradizioa errespetatzeko eta Udal honi dagozkion ekintza guztietan modu ofizialean erabiltzeko.

Bandera xumea izan behar da, sinbolikoa, kolore gutxikoa eta bereizten erraza.

1519an Azkoitiko udal inbentarioan aipatzen eta deskribatzen den bandera historikoa kolore gorrikoa da; vexilologiaren arabera, adorearen eta ahaleginaren sinboloa da kolore hori. Uste dugu kolore honek balio berak ordezkatzeko dituela 500 urte geroago ere. Balio horiek iraganari eta etorkizunari buruz hitz egiten digute, gizateriaren alderdi erabakigarriak horiek, eta identitateari eta gizarteko parte izateari

Luis Javier Fortún historialariaren arabera, aipatzen da ezagutzen den Nafarroako lehenengo bandera hau dela: “la dicha vander... la qual es colorada, sembrada en ella cadenas y una corona doradas”. Faustino Menéndez-Pidal heraldistak azaldu zuen, era berean, antzinako kondaira batzuek hau esaten zutela: “Nafarroako hasierako erregeek, ‘kateak’ jarri aurretik, ezkutu gorri liso bat zuten”.

Susma genezake, baita ere, 1519ko Azkoitiko banderaren kolore gorriaren jatorria izan daitekeela lurralde hauek Nafarroako Erreinuaren barnean egotea, eta baita antzinako Baldako jaurerriak, Ganboatarrak, Erreinu zaharrarekin bat egin izana ere.

⁴ Borla hari multzo baten amaiera da. Hari horiek txirikorda moduan daude. Apaingarri unibertuala da, eta aldaerak ditu kultura guztietan. Israelitei agindu zitzaizen beren kapen ertzetan edo amaieretan borla batzuk eramatea, etengabe Jaunaren Legeari arreta jarrita egon zitezela. Moisesen jatorrizko agindua izan zen borla bat jartzea jantzien muturretan.

⁵ GPAH-AHAPG, Domingo de Sagastizabalen Eskribautegia. 1599. urtea. 2-888 Paper sorta. A Koaderno. 199-206 Or. (Javier Elorza historialariaren arabera).

⁶ Gogoratzen den azkenetako bat Donostiako Udaletik jasotakoa da, hiria suntsitu eta berreraikitzen hasi zeneko 150. urteurrena ospatzeko. Kolore morea zuen; haren armarrira zeraman, eta 1813, 1863 eta 1963 datak, zilarrezko bordatuarekin.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

buruz. Berezitasun gisa, aipatu behar da duela urte askotatik kolore hori erabili dutela gure herriko kirol erakunde sinbolikoek ere.

AZKENIK, Azkoitia 1324an Hiribildu gisa eratu izanaren 700. Urteurrena dugula ospatzeko bide honetan, proposatzen dugu ofizial egin dadila, izapide guztiekin, hemendik aurrera Azkoitia ordezkatzeko duen bandera, herriaren pasatako historian izan zen bezala.

Aurreko guztia oinarri hartuta, vexilologiaren arloko deskribapena hau izango litzateke:

Bandera errektangularra, 2:3 proportzioak dituena; Bandera kolore gorrikoa da, eta erdigunean udal armarrria eraman dezake, bere metal eta koloreekin.

Beraz, txostenak proposatzen du, Azkoitiko banderak bere jatorrizko kolorea berreskuratu beharko lukeela, kolore horretako bandera erabiltzeko Azkoitiko Udalarai dagokion ekitaldi ofizialetan. Aipatutako egintzak garrantzi berezia hartzen du, 2024ean Azkoitiko hiribildua fundatu zela 700 urte beteko baitira. Hori horrela, proposatzen den deskribapen bexilologikoa honakoa da:

Bandera errektangularra, 2:3 proportzioak dituena; Bandera kolore gorrikoa da, eta erdigunean udal armarrria eraman dezake, bere metal eta koloreekin.

Aipatutako proposamena ikusita, Udal honek, dagokion irizpena eskatu dio Eusko Ikaskuntza erakundeari, aipatutako aurkikuntzaren oinarrien inguruko iritzia eman dezan. Aipatu txostenak ondokoa ondorioztatzen du:

“Unica.- Consideramos que el proyecto de Modificación de la Bandera, recuperando el color original de la misma, propuesto por Don Juan Bautista Mendizabal y el Ayuntamiento de Azkoitia, se ajusta en todo a la descripción que de la misma se hizo en 1519, y debe ser aprobado por esta Sociedad.”

KONTUAN HARTURIK

Idazkariak dagokion txostena egin duela urriaren 14an, eta besteren artean, prozedurari dagokionez jarraian aipatzen dena zehazten duela:

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak, herriko banderaren onarpenaren inguruko hainbat arau ezartzen ditu. 22.2. artikulua honakoa dio:

Corresponden, en todo caso, al Pleno municipal en los Ayuntamientos, y a la Asamblea vecinal en el régimen de Concejo Abierto, las siguientes atribuciones:



b) Los acuerdos relativos a la participación en organizaciones supramunicipales; alteración del término municipal; creación o supresión de municipios y de las entidades a que se refiere el artículo 45; creación de órganos desconcentrados; alteración de la capitalidad del municipio y el cambio de nombre de éste o de aquellas **entidades y la adopción o modificación de su bandera, enseña o escudo**

47.2 Artikuluan honakoa dio:

2. Se requiere el voto **favorable de la mayoría absoluta** del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias:

e) Adopción o modificación de su bandera, enseña o escudo

2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera Eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzkoak banderaren onarpena osoko bilkuraren eskumenen artean barnebiltzeaz gain (50. artikulua), honakoa dio:

186. artikulua

La concesión a las entidades locales de tratamientos, honores o prerrogativas especiales, así como el otorgamiento a las mismas de títulos, escudos, **banderas**, blasones, lemas y dignidades, **se efectuará por el órgano de gobierno competente de la Comunidad Autónoma, previa la instrucción de expediente.**

Aipamen horretan oinarrituta, abenduaren 1eko 364/1987 Dekretuak, Toki Erakundeek Ikur Bereizgarriak Hartzeko Eta Aldatzeko Prozedura onartzen zuen Dekretuak prozedura bat ezartzen zuen, bandera eta ezkutu horien onarpenerako. Prozedura hartako izapide aipagarrienak izanik, hasierako onarpenaren ondoren onarpen akordioa hilabetez jendaurreko epean egon beharra eta Eusko Ikaskuntzaren eta Foru Aldundiaren txostena emateko beharra. Ondoren, berriz ere osoko bilkurak onarpena emanda behin betiko onarpena Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioako Sailordetzari zegokion.

Dena den, dekretu hau apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak indargabetu zuen bere xedapen indargabetzailean.

Hortaz, egun banderaren onarpenaren inguruan indarrean dagoen araudia Gipuzkoako Udal Barrutiak Erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak ezarritakoa da. Foru arau honen oinarria da Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko 27/1983 Legea. Honek ezartzen ditu, autonomi elkarte osorako erakundeen eta herrialde historikoetako foru erakundeen arteko harremanak, arau horrek ezarritakoaren arabera herrialde historikoetako foru **erakundeek eskumen osoa dute udalbarrutien eta udalez gaineko barrutien gaian**, beren herrialde historikoa gainditzen ez duten bitartean.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Eskumen horretan oinarrituta, honakoa xedatzen du Gipuzkoako Udal Barrutiak Erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak, 37. Artikuluan:

37. artikulua. Armarrria eta bandera.

*Udalen eta udalez peko erakundeen armarrriak eta banderak erabakitzeko, eta Foru Arau hau indarrean jartzen denean erabakiak daudenak aldatzeko, **udal batzarraren erabakia behar da**, edo hala dagokionean Auzo Batzarrarena, **aldaketaren aldeko arrazoi historiko edo heraldikoak espedientean argi eta garbi frogatu behar direlarik**. Nolanahi ere, hala behar denetan udalez peko erakundea den udalerriri entzuna izateko aukera bermatuko zaio.*

Behin-betiko ebazpena Foru Aldundiari dagokio. Ebazpen horrek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharra eta Gipuzkoako Udal Erakundeen Foru Erroldan jaso beharra adieraziko ditu.

Aipatutako artikulua, prozeduraren gainean oso arau gutxi ezartzen ditu, baina Gipuzkoako Foru Aldundiko Toki Administrazioako Harremanetako Zerbitzuarekin harremanetan jarri ostean, horiek adierazi digute indargabetutako 364/1987 Dekretuaren oinarritzko izapideak aurrera eramateko komenigarritasuna, hilabeteko jendaurreko epealdiari eta Eusko Ikaskuntzaren txostenari dagokionean, hain zuzen ere.

Beraz, banderaren onarpen prozeduraren gaineko araudia aztertuta, Idazkari honek honako proposamena egiten du:

Osoko Bilkuraren akordioa erabateko gehiengoz.

EHAAn, GAOn eta Udal Iragarki Taulan horren berri ematea eta hilabeteko jendaurreko epea irekitzea.

Alegazioak baldin badaude horiek erantzunez eta ez baldin badaude erabakia berretsiz, osoko bilkuraren akordioa hartzea erabateko gehiengoz. Akordio horretan GFARI banderaren onarpena proposatuko zaio, honek dagokion erabakia hartu eta ondoren GAOn argitaratu eta Gipuzkoako Udal Erakundeen Foru Erroldan jasotzeko eskatuz.

Hori horrela, Azkoitiko Udaleko Osoko Bilkurari honako akordioa hartzea proposatzen zaiola:

AKORDIOA

Lehenengoa: Azkoitiko bandera ofizialaren onarpenari hasierako onarpena ematea. Banderaren deskribapena honakoa da:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bandera errektangularra, 2:3 proportzioak dituen; Bandera kolore gorrikoa da, eta erdigunean udal armarría eraman dezake, bere metal eta koloreekin.

Bigarrena: Espediente hau jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, interesa duen edonork alegazioak aurkezteko aukera izan dezan.

Hirugarrena: Akordio honi dagokion iragarkia EHAA, GAOn eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

Antolakuntza Batzordean onartua, 2021eko urriaren 21ean, honako bozketa emaitzekin:

ALDEKO BOTOAK: JAVIER ZUBIZARRETA, ANA AZKOITIA, SONIA VÁZQUEZ, JANIRE IGOA, JOSE JOAKIN ETXANIZ

ABSTENTZIOA: AINARA GOENAGA, IRAITZ OTAÑO.”

Juan Bautista Mendizabal jaunak hartu du hitza. Aurkikuntza berezi bat dakarrela dio, 700 urteko bidean herriko sinboloak osatzeko ederra izango litzatekeela.

1988. urtean armarría onartu zela aho batez esan du.

Artxiboan, 1519. urteko inbentario bat agertu zela adierazi du, zehazten duena inbentarioan zer zegoen eta bertan jartzen duela: *“la bandera que es de lienzo de bocarán, colorada, con su bordadura”*

Baita ere dio, 1599. urteko beste dokumentu batean agertzen dela “borla” daukala Azkoitiko banderak.

Txostenean adierazten ditu horien esanahiak.

Bandera zuria erabiltzen da banderaren kolorerik ez denean jakiten. Koloreak (gorria) Nafarroako erreinuarekin lotura duela uste du.

Ondoren, dokumentazioa Eusko Ikaskuntzari bidali zitzaioela azaldu du, honek ontzat eman zezan, eta hala izan dela.

Nahiko luke herriko bandera izatea, denona izatea, ez batena, ez bestea.

Zehaztu du banderak eskudoa eraman dezakeela edo ez.

Idazkariak azaldu du prozedura.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, ondareaz arduratzen den zinegotziak dioena ez dutela zalantzan jartzen esan du, eta alde bozkatuko dutela iragarri.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin



Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko bandera ofiziala hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

3.- SAN JOSE EGOITZAREN ONDASUN HIGIEZINAREN DESAFEKTAZIOAREN HASIERAKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“GAIA: SAN JOSE EGOITZARI DAGOKION ONDASUN HIGIEZINAREN DESAFEKTAZIOA

IKUSIRIK

Eusko Legebiltzarrak 2008ko abenduaren 5ean onetsi zuen 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 22. artikuluan definitzen du zein diren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta dauden zerbitzuak, euskal administrazio publiko eskumendunek bermatu beharrekoak.

Artikulu horretan bi apartatu bereizten dira: batetik, lehenengo apartatuan daude lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak, 42.4 artikulua arabera udalen eskumenekoak direnak –telelaguntza zerbitzua izan ezik, hori Eusko Jaurlaritzari baitagokio- bestetik, bigarren apartatuan daude bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak, 41.3 artikulua arabera foru aldundien eskumenekoak direnak -40.3 artikulua Eusko Jaurlaritzari egozten dizkionak salbu-.

Legeak foru aldundien esku uzten dituen bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen artean daude adinduentzako egoitza-zentroak eta autonomia mugatuak eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzuak edo zentroak.

Legeak ezarritako eskumen banaketa horren aurretik udalek kudeatzen zituzten udal titularitateko adinduentzako egoitza-zentro eta eguneko zentro asko, nahiz eta



Foru Aldundiak finantzatu, bi entitateen arteko lankidetzaz hitzarmenen arabera. Horien artean zegoen Azkoitiko Udala eta San Jose Egoitza.

Aipatutako eskumenen banaketa praktikara eraman eta zehaztutako zerbitzu horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzeko asmoz, Azkoitiko Udaleko osoko bilkurak 2015eko otsailaren 10ean adostu zuen honakoa:

LEHENA.- *San Jose Adinekoentzako Udal Egoitzaren eta Eguneko Zentroaren Kudeaketaren eskualdaketa onartzen duen Lankidetzaz Hitzarmena, Azkoitiko udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artekoa, onartzea, ondoko testuaren arabera: (...)*

BIGARRENA: Eskualdatzen den ondasun higiezia

Aurreko klausulan xedatutakoa gauza dadin, Azkoitiko Udalak ondoren deskribatzen den ondasun higiezia lagako du doan, eta "San Jose egoitza" erakunde autonomoak, berriz, ondasun higiezinan dauden altzari, ekipamendu eta materialak, Udalaren baimena jaso ondoren.(...)

HIRUGARRENA.- *Egoitzaren zabalpenerako 2004. urtean desjabeturiko lurra, 754-N finantziari bereizi zelarik, eta bertan egin diren eraikuntza berriak, Azpeitiko Jabetza Erregistroan inskribatzeko izapideen hasiera agintzea.*

LAUGARRENA.- *Azkoitiko Alkate-Udalburuari behar adinako ahalmena ematea, aurretiazko Hitzarmenetan jasotako akordioekin zeresanik duen dokumentazio guztia izenpetu, eta beharrezkoak diren izapideak gauza ditzala, aipatu akordioetan xedaturikoa bete dadin, udal honen izenean eta ordezkartzen.*

BOSTGARRENA.- *Onarturiko Lankidetzaz Hitzarmenen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren web orrian, eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.*

SEIGARRENA.- *Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, Alkate-Lehendakariak sinatuta."*

Lehenengo puntuan onartutako hitzarmenaren helburua zen, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzea "San Jose" egoitzan ematen zen adineko pertsonentzako egoitza zerbitzuaren eta eguneko zentroaren gaineko eskumena.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aldi berean, Azkoitiko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta, hala balegokio, Kabia erakunde autonomoari agindu zion, kudeaketa agindu baten bidez, adineko pertsonentzako egoitza hartzen zuen higiezin berean dauden tutoretzapeko apartamentuen kudeaketa. Kudeaketa mandatu hori I. eranskinean jasotako termino eta baldintzetan gauzatzen da.

Bestalde, hitzarmenaren bigarren puntuan zerbitzu horiek gauzatzeko espazioari buruz hitz egiten da. Bertan adierazten da *“aurreko klausulan xedatutako gauza dadin, Azkoitiko Udalak ondoren deskribatzen den ondasun higiezina lagako du doan, bertan dauden altzari ekipamendu eta materialarekin”*

Ondoren zehazten da eraikinaren zati bat jabetza erregistroan inskribatuta badago ere (eraikin zaharra, jabetza erregistroan Azkoitiko 836 finka), beste eraikinaren zatiaren obra berriaren deklarazioa egin gabe dagoela. Zati berriari dagokionez bereizten dira lursaila eta eraikina bera.

Jarraian zehazten dira, ondasunaren lagapenaren baldintzak. Honakoak:

Higiezinaren doako lagapena egiteko kontuan hartuko da zer xedatzen duten Ondasunen Erregelamenduko 8., 109., 110. eta 111. artikuluek eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondasunari buruzko 1996ko uztailaren 9ko 8/1996 Foru Arauko 36. artikulua.

Lagapena honako baldintzetan egingo da:

1.- Higiezinaren erregistroko deskribapena eguneratu egin behar da, egin diren handitzeen obra berriko deklarazioarekin, eta hori eguneratu ondoren higiezin osoaren doako lagapena egingo du Azkoitiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde.

2.- 2015eko aurreneko hiruhilabetekoan udalak amortizatuko du ondasun honetan egin diren azkeneko inbertsioak ordaintzeko helburuarekin hitzarturiko mailegua, eskualdaketa inolako kargarik gabe gauza dadin.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiak ondasuna atxikiko du gizarte zerbitzuetara, eta ezingo du beste helburu desberdinetarako bideratu. Eraikinaren egungo erabilera –adineko pertsonentzako egoitza- aldatu eta gizarte zerbitzuen arloko beste erabileraren bat ezarri nahi izanez gero, Udalaren adostasuna beharko da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

4.- Ondasun higiezina 3. puntuan aipatu den helburua ez den beste zerbaitetara bideratuz gero, udalaren baimenik gabe gizarte zerbitzuen arloko beste erabilera batetara bideratuz gero, edo jarduera bertan behera utziz gero, lagatako ondasuna itzularazteko prozesuari ekin diezaioke Azkoitiko Udalak, ondasun eta osagarriak barne.

5.- Higiezinaren lagapena formalizatzearen ondoriozko gastu guztiak eta baita, gertatuz gero, itzularaztea formalizatzeko gastuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

6.- Lagapena gauzatu ahal izateko, Azkoitiko Udalak bederatzi (9) hilabeteko gehieneko epean izapidetuko du doako lagapen espedientea, hitzarmen honen bosgarren estipulazioan ezarritako eskualdaketaren eraginkortasun datatik aurrera.

Aipatutako ondasun higiezina Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde eskualdatzea sinatzen den bitartean -gehienez bederatzi hilabeteko epean-, Azkoitiko Udalak doan lagatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari aipatu finkaren erabilera, azaldu diren helburuekin, eskualdaketaren eraginkortasun datatik aurrerako ondorioekin.

Zerbitzuari lotutako ondasunen gainean, aipatutako otsailaren 10eko akordioaren aurrekarien atalean, bigarren zenbakian, honakoa zehazten da:

BIGARRENA.- Azkoitiko udala, San Jose Egoitzak, Eguneko Zentroak eta Tutelapeko Apartamentuek okupatzen dituzten lurren eta eraikinen jabea da, halaber haietan kokaturiko altzari eta instalazio guztienak ere. Udalak, ondoko egintza hauek burutu behar ditu:

- **Egoitzaren zabalpenerako 2004. urtean desjabeturiko lurra, 754-N finkatik bereizi zelarik, eta bertan egin diren eraikuntza berriak, Azpeitiko Jabetza Erregistroan inskribatzea.**
- **Aipatu ondasunak jabari publikotik desafektatzea eta foru-administrazioari lagatzea, azken honek Egoitza, Eguneko Zentroa eta Tutelapeko Apartamentuen erabilera publikoekin lotu ditzala.**
- **Ondasun hauetan inbertsio berriak gauzatzeko helburuarekin hitzarturiko kreditu-eragiketa kitzatzea.**
- **Eskualdatu behar diren ondasun guztiak -higiezinak zein higigarriak- erroldatzea eta baloratzea, dagokion akordioa hartu aurretik.**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hitzarmenean bertan aipatzen den 9 hilabeteko epean, ez ziren aipatutako erregularizazioak burutu, ondasunaren titularitatean zeuden arazoak tarteko, baina egun San Jose Egoitza osoa inskribatuta dago Azkoitiko 13700 finka gisa, bertan sartuta baitaude eraikin zaharra eta eraikin berria. Inskripzio honen oinarria da Iciar Fernández Zornoza Azkoitiko notarioaren aurrean egindako agrupazio eta obra berriaren deklarazioari dagokion eskritura publikoa, 2017ko abenduaren 28koa.

Hori horrela, San Jose Egoitzaren eraikin osoa dagokion moduan inskribatuta dago jabetza erregistroan 2018ko otsailaren 5etik aurrera, hortaz, adierazi daiteke, 2015eko otsailaren 10eko Udal erabakiaren hirugarren puntuan jasotakoa burutua dagoela.

Beraz, eraikinari dagokionean, momentu honetan egin beharreko izapidea hura desafektatzea da, ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzeko.

Inbertsio berriak gauzatzeko helburuarekin hitzarturiko kreditu-eragiketak kitatuak daude, eta ondasunak baloratuak izan ziren akordioa hartzean eta guztizko balioak kointziditzen du obra berriaren deklarazio eta agrupazioko eskrituran jasotako ondasunen guztizko balioarekin.

2015eko otsailaren 10ean onartutako hitzarmen hau aldatua izan zen, 2015eko apirilaren 27an egindako bilkuran. Egindako aldaketak ez ziren funtsezkoak izan (goian aipatutako zatiak ez ziren aldatuak izan) eta berau sinatu zen apartamentu tutelatuen inguruko kudeaketa gomendioa arautzen zuen eranskina barne 2015eko maiatzaren 18an.

KONTUAN HARTURIK

Sinaturiko hitzarmenak adosten du adinekoen egoitza eta eguneko zentro zerbitzuaren kudeketari lotutako ondasun higiezinak doan lagatzea Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Aipatutako zerbitzuei lotutako ondasunak jabari publikoko ondasunak dira, erabilera eta zerbitzu publikoari lotutako ondasunak direlako (agrupazio eta obra berriaren eskrituran erabilera publikoko gisa definitzen dira, hala dago jasota jabetza erregistroko deskribapenean eta jakin badakigu adinduen egoitza, apartamentu babestu eta eguneko zentro gisa erabiltzen zirela, nahiz eta Udal inbentarioko fitxan ez den euren kalifikazio juridikoa zehazten), apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 79.3,



apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 74 eta Ondasunen Erregelamenduaren 4. Artikuluan zehaztu legez.

Ondasunen lagapena erregulatzen da, besteak beste, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Ondasunen Erregelamenduko 109 eta hurrengoetan eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 79 eta 81. Artikuluetan.

Ondasunen Erregelamenduak honakoa dio:

Art. 109.

2. Los bienes inmuebles patrimoniales no podrán cederse gratuitamente sino a Entidades o Instituciones públicas para fines que redunden en beneficio de los habitantes del término municipal, así como a las Instituciones privadas de interés público sin ánimo de lucro. De estas cesiones también se dará cuenta a la autoridad competente de la Comunidad Autónoma.

Art. 110.

1. En todo caso, la cesión gratuita de los bienes requerirá acuerdo adoptado con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, previa instrucción del expediente con arreglo a estos requisitos:

a) Justificación documental por la propia Entidad o Institución solicitante de su carácter público y Memoria demostrativa de que los finés que persigue han de redundar de manera evidente y positiva en beneficio de los habitantes del término municipal.

b) Certificación del Registro de la Propiedad acreditativa de que los bienes se hallan debidamente inscritos en concepto de patrimoniales de la Entidad local.

c) Certificación del Secretario de la Corporación en la que conste que los bienes figuran en el inventario aprobado por la Corporación con la antedicha calificación jurídica.

d) Informe del Interventor de fondos en el que pruebe no haber deuda pendiente de liquidación con cargo al presupuesto municipal.

e) Dictamen suscrito por técnico que asevere que los bienes no se hallan comprendidos en ningún plan de ordenación, reforma o adaptación, no son necesarios para la Entidad local ni es previsible que lo sean en los diez años inmediatos.



f) Información pública por plazo no inferior a quince días.

Erregulazio berdina xedatzen da 781/1987 Errege Dekretu Legegileko 79 eta hurrengo artikuluetan.

Beraz, garbi geratzen da laga beharreko ondasunen kalifikazio juridikoa patrimoniala izan behar dela eta ez jabari publikoko ondasunei dagokiena. Hori horrela eta ikusita kasu honetan ondasunak jabari publikoko ondasunak direla, lagapena aurrera eraman aurretik ondasun honen kalifikazio juridikoa aldatu behar da, desfektatu egin behar dira, alegia.

Laga ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak berriz ere ondasunok zerbitzu publiko berdinerara bideratuko dituzenez, horiek afektatu beharko ditu.

Jabari publikoko ondasunen desfektazioa honela arautzen da. Ondasunen Erregelamenduaren 8 eta 35. Artikuluek honakoa diote:

Art. 8.

1. La alteración de la calificación jurídica de los bienes de las Entidades locales requiere expediente en el que se acrediten su oportunidad y legalidad.

*2. El expediente deberá ser resuelto, previa **información pública durante un mes**, por la Corporación local respectiva, mediante «acuerdo adoptado» con el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la misma.*

*3. En cualquier caso, la incorporación al patrimonio de la Entidad local de los bienes desfektados, incluso cuando procedan de deslinde de dominio público, no se entenderá efectuada hasta la **recepción formal** por el órgano competente de la Corporación de los bienes que se trate, y en tanto la misma no tenga lugar seguirán teniendo aquellos el carácter de dominio público.*

Azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legeak afektazioa eta desfektazioa arautzen ditu 65 eta hurrengo artikuluetan. Horiek ez dute oinarritzko izaerarik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.l artikuluen arabera, osoko bilkuraren eskumenekoak dira jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoaren aldaketa



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

dakarten akordioak. 47.2. n) eta ñ) artikulua gaineratzen dute ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeari dagozkion akordioak eta bai ondasunen dohako lagapenaren ingurukoak gehiengo absolutuz hartu beharreko akordioak direla.

Hori horrela, honako izapidetzea aurrera eramatea hobesten da:

- Ondasuna desafektatzea, jabari publikoko ondasuna izatetik ondare ondasun izatera pasatzeko. Hasierako onespina
- Hilabete bateko jendaurreko epea.
- Alegazioak badaude hauek erantzunez eta ez badaude erabakia berretsiz osoko bilkurak erabakia hartu ondasuna ondare ondasun izatera pasatzen dela erabakitzen duena, gehiengo absolutuz. Ondoren jasotze akta sinatu behar da.
- Ondasunaren lagapenaren hasierako onarpena (aurreko puntuko erabakiarekin bat egin dezake)
- 15 laneguneko jendaurreko epea
- Ondasunaren lagapenaren behin betiko onarpena, gehiengo absolutuz.

EBAZPENA:

LEHENENGOA: Azkoitiko 13700 jabetza erregistroko finka zenbakia duen San Jose Egoitzaren ondasun higiezinaren desafektazioari hasierako onarpena ematea, ondasun hau jabari publikoko ondasun izatetik ondare ondasun izatera pasa dadin, 2015eko maiatzaren 18an Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren egikaritzaren baitan, ondoren dagokion lagapena aurrera eramateko.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean.

HIRUGARRENA: Erabaki honi dagokion iragarkia GAO-n, udaletxeko iragarki taulan eta udal web guneko gardentasun atarian jartzea.

Antolakuntza Batzordean onartua, 2021eko urriaren 21ean honako bozkekin:

ALDEKO BOTOAK: JAVIER ZUBIZARRETA, ANA AZKOITIA, SONIA VÁZQUEZ, JANIRE IGOA, AINARA GOENAGA, IRAITZ OTAÑO

KONTRAKO BOTOAK: JOSE JOAKIN ETXANIZ.”



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ana Azkoitia andreak 2015. urteko maiatzean onartu zela hitzarmena dio. Gizarte Zerbitzuetako zerbitzuen eskumena, Eguneko Zentroa, eta Egoitzaren zerbitzuen kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola dio eta zerbitzu horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketara pasa zirela.

Ondoren, fleko batzuk geratu zirela esan du, lurren aldetik eta abar. Dena den, tramitazioan jarraitu behar dela esan du, eta ondasuna desafektatzen hasi behar direla, lagatzen den ondasuna, ondare ondasuna izan behar delako eta ez demaniala. Horretarako, eraikina desafektatu beharra dago.

Ikusita likidazioa gertu dagoela, eta hiru pleno behar direla tramitazioa burutzeko, hastea erabaki dutela adierazi du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak ez dela une egokia desafektaziorako esan du, kexa asko jaso direlako azken aldiak; Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi zenetik okerrera egin duelako zerbitzuak.

Uste dute eskumena herrira bueltatzen saiatu beharko liratekeela. Ezezko bozka emango dute.

Ana Azkoitia andreak esan du uste duela gauzak ez direla nahastu behar, legea bete eta hitzarmena betetzeko pausuak ematen ari baitira. Funtzionamenduan dauden hutsuneak konpondu behar direla esan du, baina batak ez duela bestea kentzen. Sinatutako hitzarmena bete egin behar dela dio, eta gainera, eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena bada bete egin behar dela. Denak dabiltzala lanean egoiliarak ondo egon daitezen. Azkoitiak ezin du joan lege baten kontra.

Iraitz Otaño jaunak, tramite administratibo bat dela esan du, legearen kontra ezin direla joan. Dena den, lanean ari dira egoitzako egoera hobetzeko. Uste du Jose Joakin Etxaniz jaunaren partetik gaia nahasteko asmoa dagoela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak dio uste duela orain ez dela derrigor erabaki hau hartu behar, ez dela momentua.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarburen eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Udalbatza Osoak San Jose Egoitzako ondasun higiezinaren desafektazioa hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.

4.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO AZKOITIKO UDALEKO 6 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA

1.- AURREKARIAK

2021urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Alkate Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapidetza aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

TXOSTENA

AZKOITIKO UDALA

KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA

KREDITU GEHIGARRIA 6/2021

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu-Araua, toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA
SAN JOSE EGOITZA
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu onarpenaren espedienteak -5.280.187,15 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Ondorio horretarako, pasa den urtean egiten zen moduan, doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2020ko Udaleko eta bere erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretizko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziazioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2020ko gerakina
Kreditu txertaketa 1/2021	1.343.493,35
Kreditu txertaketa 2/2021	612.889,06
Kreditu gehigarria 1/2021 udala	509.519,18
Kreditu gehigarria Elkargune 1/2021	25.000,00
Kreditu gehigarria 2/2021 udala	148.500,00
Kreditu gehigarria Elkargune 2/2021	114.000,00
Kreditu gehigarria 3/2021 udala	1.602.000,00
Kreditu gehigarria 4/2021 udala	270.000,00
Kreditu gehigarria 5/2021 udala	53.000,00
Kreditu gehigarria 6/2021 udala	35.000,00
GUZTIRA	4.713.401,59



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Honegatik doiketa 4.713.401,59€koa da eta ondorioz **espedienteak - 566.785,56 euroko defizita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere foru dekretu arau honen 1.4 atalak dio hurrengo artikuluan araututako defizit helburuak gaindituz gero, toki entitateak behartuta egongo direla plan ekonomiko finantzario bat egitea eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2021erako zehazterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz Azkoitiko Udalarentzat defizit globaleko helburua hauxe da:

Azkoitiko Udalaren kasuan 1.242.217 € da defizit muga, 2.2 artikulua arabera.

Hori dela eta, Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, 6/2021 kreditu gehigarriak, behin gerakinaren doiketa eginda, 9/2020 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

Finantzen iraunkortasuna

2021eko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 5.106.188,38€, 2020an likidatutako sarrera arrunten (13.968.337,66€) % 36,55 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2021eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2021erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2021erako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

9/2020 Foru dekretu arauak 2020 eta 2021erako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz zor publikoaren helbururik ez da bete behar 2021ean.

Hala ere esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udalaren kasuan, 2021ean, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 36,55 a hain zuzen.

Gastuaren araua



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	2021	2020 LIKIDAZIOA
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	19.334.047,15	12.851.207,94
Zorraren interesak:	43.272,87	37.206,67
SEC doikuntzak:		
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzaturako gastua:	695.100,00	730.245,11
Gastu konputagarria:	18.595.674,28	12.083.756,16
Gastu konputagarriaren hazkundera	53,88%	

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, simulazio bat besterik ez da egin, 2020ko erreferentziak kontuan hartuz. 2021erako ez dago ez hazkunderaren erreferentzi tasarik, ezta gastu konputagarria kalkulatu beharrik. Gastu araua etenda dago baita ere 9/2020 foru Dekretu arauaren arabera.

1.3.- ONDORIOAK

9/2020 foru dekretu arauaren ondorioz etenda gelditu dira txostenean aztertu ditudan hiru arau fiskalak.

Esan behar da egonkortasun helburuari dagokionez, Kreditu aldaketa honek, behin gerakinaren doiketa eginda, defizit egoera helarazten duela -566.785,56takoa, baina defizit kopuru hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko Udalari lagatzen dion defizit mugaren azpitik dagoela, 1.242.217 € baita Azkoitiari dagokiona, 2.2 artikuluaaren arabera.

Une batean Udalak defizit helburua gaindituz gero, behartuta egongo da plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Honez gain 9/2020 Foru dekretu arauaren 1.3 artikuluaaren arabera diruzaintzako gerakina erabili daiteke kreditu aldaketak finantzatzeko, arau fiskalak eteteak berekin bait dakar, eten egingo dela sarrera handiagoak eta diruzaintzako gerakina zorra murriztera bideratzeko eskakizuna.

Azkoitian, 2021eko urriak 21ean
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

IRIZPENA

LEHENENGO: Proposamenean zerrendatzen diren Azkoitiko Udalaren gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 35.000,00€ zenbatekoa.



BIGARRENA: Espediente onartzeko eskumena bilkura osoari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsoei buruzko tramiteak. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaito Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

Antolakuntza Batzordeak, 2021eko urriaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: JAVIER ZUBIZARRETA, ANA AZKOITIA, SONIA VÁZQUEZ, JANIRE IGOA, JOSE JOAKIN ETXANIZ, AINARA GOENAGA, IRAITZ OTAÑO.”

Ana Azkoitia andreak adierazi du etxez etxeko laguntza zerbitzuaren partidan gehikuntza egin nahi dela, uste delako dagonarekin ez direla iritsiko urte amaierara. 35.000€ gehiago jartzea proposatu dute.

Jose Joakin Etxaniz jaunak ez dutela eragozpenik jarriko esan du, helburua zein den ikusita.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko udaleko 6 zenbakidun espedientearen hasieraz onartzea aho batez erabaki du.



5.- 2022RAKO TAXI TARIFEN ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA

TAXISEN TARIFAK 2022.URTERAKO

1.- AURREKARIAK

AGITAX, Gipuzkoako Taxiaren Elkarteak, 2022 urteko tarifen proposamena igorri zuen. Honekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2021 urterako auto taxi baten ustiapenaren kostuen eta diru sarrerren ikerketa bidali zuen.

Proposamen honetan honako hau dio:

Erabili behar den, barruko elkartutako tarifa berrikuspena eta 3,3% igoera egin ondoren, erantsitzen den azterketa ekonomikoan oinarrituta.

Esandakoarekin, tarifaren taula, hurrengo urterako, prezio hauekin gelditzen da:

2022 ko HIRI BARRUKO TARIFA			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROA	ITXARON ORDUA
TARIFA 1	3,7523	1,1840	22,6120
TARIFA 2	3,7796	1,8884	35,5438

TARIFA 1: Lanegunetan 07:00 tik 22:00 arte

TARIFA 2: Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00 tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00 tik 22:00 arte bai larunbatetan eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Beraz, Antolakuntza Batzordeak honako irizpena proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENENGOA.- 2022 eko taxisen tarifak onartzea.

AURREKO TARIFAK

2021eko HIRI BARRUKO TARIFA			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROA	ITXARON ORDUA
TARIFA 1	3,6325	1,1462	21,8896
TARIFA 2	3,6588	1,8281	34,4083

DATORREN URTERAKO PROPOSATUTAKO TARIFAK



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2022ko HIRI BARRUKO TARIFA			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROA	ITXARON ORDUA
TARIFA 1	3,7523	1,1840	22,6120
TARIFA 2	3,7796	1,8884	35,5438

TARIFA 1: Lanegunetan 07:00 tik 22:00 arte.

TARIFA 2: Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00 tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00 tik 22:00 arte bai larunbatetan eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Beraz, Antolakuntza Batzordeak 2021eko urriaren 21ean izandako Batzordean ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

ALDEKO BOTOAK: JAVIER ZUBIZARRETA, ANA AZKOITIA, SONIA VÁZQUEZ, JANIRE IGOA, JOSE JOAKIN ETXANIZ, AINARA GOENAGA, IRAITZ OTAÑO.”

Ana Azkoitia andreak, gaia urtero ekartzen dutela dio, Taxisten Elkarteak proposamena egiten duela eta hura dela adostu dena eskualdeko bileran.

Jose Joakin Etxaniz jaunak esan du baiezkoa emango diotela, agente guztien adostasuna duelako.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2022rako Taxi tarifak onartzea aho batez erabaki du.



6.- EAJ-PNV ETA EH BILDU UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SALBA DEZAGUN SULTANA JAYAREN BIZITZA-

Honako mozioa aurkeztu da:

“SALBA DEZAGUN SULTANA JAYAREN BIZITZA

Osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

Sultana Jaya da Mendebaldeko Saharako eremu okupatueto aurpegi-rik ikasgarrieto bat, Marokoko okupazio agintaritzaren aurka zuzenean borrokatzeagatik. Sultana eta haren familia tratu txar fisiko eta psikologikoak jasaten ari dira saharar herriaren autodeterminazioaren eta independentziaren aldeko aldarrikapen baketsuak bertan behera utz ditzaten.

Mendebaldeko Saharako hiri okupatueto saharar biztanleria zibilak bizi duen egoera larria salatzeko erresistentzia baketsu hori nazioarteko komunitatearen arreta jasotzen ari da.

Sultana, giza eskubideen defendatzailea, eta haren familia etxean atxilotuta ditzute Marokoko indar paramilitarrek duela 295 egun baino gehiago. Etxerako sarbidea blokeatuta daukate, eta sahararrei ez diete uzten bisita egiten.

Marokoko erregimena gerra egoeraz eta pandemiaren ondorioz mugak ixteaz baliatzen ari da Mendebaldeko Saharako okupatueto eremuetako saharar zibilen aurkako beldur eta errepresio giroa ezartzeko; izan ere, Afrikan deskolonizatu gabeko azken kolonia da, eta Espainiak jarraitzen du potentzia administratzaile izaten.

SULTANA JAYAREN ETA HAREN FAMILIAREN BIZITZA SALBATU BEHARRA DAGO.

Horretarako, beharrezkoa da:

1.- NBERi, EBri eta Espainiari eskatzea premiaz joka dezatela eta Sultana ekintzaile sahararra eta haren familia babes ditzatela, arrisku larrian, Marokoko okupazio indarrek setiatuta, bakartuta eta konfinatuta bizitzen jarraitzen baitute.

2.- Espainiako Gobernuari eskatzea bete ditzala potentzia administratzaile gisa dituen erantzukizunak eta, bereziki, berma dezala Sultana Jaya ekintzaile saharararen eta haren familiaren babesa, eta eska diezaiola Marokoko gobernuari Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa errespetatzea.

3.- Bojador hiri okupatura nazioarteko mediku batzorde bat premiaz bidaltzeko eskatzea, giza eskubideen urraketa nabarmen horren aurrean ekintzaileari eta haren familiari laguntzeko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

4.- NBEren Segurtasun Kontseiluari eskatzea saharar herriaren autodeterminazio erreferenduma azkarrago egin dezala, Nazio Batuen zenbait ebazpenetan adostutakoaren arabera.”

Iraitz Otaño jaunak eta Marijose Arregi andreak irakurri dute mozioa.

Jose Joakin Etxaniz jaunak, beraiek mozioak batzordeetan eztabaidatzearen aldekoak direla dio. Ezezko bozka iragarri du.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautistia Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M^a Etxeberria Iburguren.

Kontrako botoak: Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak EAJ/PNV eta EH Bildu udal taldeek aurkeztutako mozioa onartzea gehiengoz erabaki du.

7.- ALKATEAREN EKINTZA PLANAREN BERRI EMATEA.

Honako plana aurkeztu da:

“ALKATETZA DEKRETUA

EKINTZA PLANA

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA, AZKOITIKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUAK, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 38. artikulua xedaturikoaren arabera,



IKUSIRIK

I.- Azkoitiko Udaleko, bere erakunde autonomoak diren Zubiaurre Elkargune Institutoa eta San Jose Egoitza fundazioa eta 100%ean Udalarena den Azkoitia Lantzen, S.A. baltzu publikoaren ondasunen eta diruzaintzaren integritatea babesteko eta kudeaketa ekonomiko egoki bat bermatzeko 2020 urteko plan finantzarioa egin zela. Horretarako, izan daitezkeen arriskuak baloratu zirelarik.

II.- Antolakuntza batzordeko Idazkariak, 2020ko uztailaren 16an ospaturiko antolakuntza batzordean, beste gai batzuen artean, 2020 ekitaldiari dagokion kontrol finantzarioko urteko planaren berri eman zuela eta aho batez batzordekideak gai honi dagokion azalpenen akta onartu zutela.

III.- Azkoitiko Udalbatza Plenoari 2020ko uztailaren 29an egindako bilkuran, beste batzuen artean, 2020 ekitaldiari dagokion kontrol finantzarioko urteko planaren berri eman zela.

IV.- 2021ko uztailaren 19an, Azkoitiko Udaleko Kontu-hartzaileak, 2020 urteko plan finantzarioaren emaitzen urteko txostena eman zuela.

V.- Azkoitiko Udalbatza Plenoari 2021ko uztailaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, Udaleko Kontu-hartzaileak egindako 2020 urteko plan finantzarioaren emaitzen urteko txostenaren berri eman zela.

KONTUAN HARTUTA

Lehena.- Araudi aplikagarria

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunak Arautzen dituen testu bategina onartzen duena.

424/2017 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.

Bigarrena.- Oinarri Juridikoak

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak 37. artikuluan xedatzen du Udaleko Kontu-hartzaileak, urtero prestatu beharko duela barne kontroleko emaitzen txostenaren laburpena.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ondoren, 38. Artikuluaren arabera Udaleko alkateak ekintza plan bat formalizatuko du, Kontu-hartzailearen txostenean agerian jartzen diren ahulezi, akats, errore edo ez betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak barne biltzen dituena:

38. artikulua. Ekintza plana.

1. Toki entitateko lehendakariak ekintza plan bat formalizatuko du, eta bertan barnean hartuko dira aurreko artikuluan aipatutako txosten laburtzailean agerian jartzen diren ahuleziak, akatsak, erroreak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak.

2. Ekintza plana gehienez 3 hilabeteko epean prestatuko da, txosten laburtzailea osoko bilkurara bidaltzen denetik aurrera. Planean jaso beharko dira hartutako neurri zuzentzaileak, haiek gauzatzeko arduraduna eta jarduketan egutegia, bai korporazioari berari dagokionez eta bai barne kontrolpean dauden menpeko edo adskribatutako enteei dagokienez.

3. Ekintza plana toki entitateko organo kontu-hartzaileari bidaliko zaio, aipatutako akatsak zuzentzeko egokiera eta, hala badagokio, lortutako emaitzak baloratu ditzan. Lehendakariak osoko bilkurari jakinaraziko dio zer egoeratan dagoen barne kontrolean agerian jarritako ahulezien zuzenketa. Horrela, aukera emango da osoko bilkurak aldizkako jarraipena egin diezaien kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetzeko hartutako neurri zuzentzaileei.

Hirugarrena.- Prozedura

Azkoitiko Udaleko Alkateak ekintza plan hau formalizatzen du 2021eko uztailaren 19ko finantza kontrolari eta kontu-hartze eginkizunari buruzko laburpen txostenean ageri diren ahuleziak, gabeziak, akatsak eta ez-betetzeak konpontzeko hartu beharreko neurriak zehazteko.

Laburpen txosten hori 2021eko uztailaren 28ko datan bidali zitzaion osoko bilkurari.

Osoko bilkurari bidali zenetik 3 hilabete igaro gabe kontu-hartzaileari bidali behar zaio. Kasu honetan, kontu-hartzaileak ekintza planari erakutsi dio bere oniritzia, hots, egokitzat jo du bere txostenean adierazitako gabeziak konpontzeko.

Ekonomiaren eta finantzen kudeaketa hobetzeko ezarritako neurri zuzentzaileen aldizkako jarraipena egiteko Alkateak barne kontrola egitean agertutako ahulezien zuzenketaren egoeraren berri emango dio osoko bilkurari.

Laugarrena.- hartu beharreko neurriak



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kontu-hartzaileak, 2021eko uztailaren 19an, egindako txostenean, Azkoitia Lantzen, S.A.ri dagokionez, agertzen da Auditoretza lanak kontuenak egin direla, baina ez betetzearenak eta ezta ere operatiboarenak ere. Beraz, hutsune hau betetzeko, hemendik aurrera Auditoretza lanak kontuenak, betetzearenak eta operatiboarenak egingo dira. Horretarako, lehen urtean kontratu txiki bidez egingo da esleipena zuzenean, aurrez, Kontuen Auditoretza egiten duen AGEM CONSULTORES Y AUDITORES, SL enpresari, ondoren, indarrean dagoen kontratua egokitu edo lizitazio berria atera beharko delarik. Hau gauzatzeko arduradunak, Azkoitia Lantzeneko goi mailako Teknikaria eta Kontu-hartzailetza organoa izango dira eta ezartzeko epea 2021 urteko azken hiru hilabetea izango da, ondorengo taulan adierazten den gisa:

EZ-BETETZEAK		NEURRI ZUZENTZAILEAK		HAIEK GAUZATZEKO ARDURADUNA		EZARTZEKO EGUTEGIA
Azkoitia betetze eta operatiboa	Lantzenen auditoretza auditoretza	Kontratu gauzatu aurreneko eta hurrengoetan lizitatu	txikia urtean	Kontu-hartzailea Azkoitia lantzeneko goi mailako teknikaria	2021eko azken hiru hilabetea	

Hau guztian kontuan hartuta, ondokoa

EBATZI DUT

LEHENA.- Ekintza plana onartzea eta aipaturiko pausoak ematea berau betetzeko.

BIGARRENA.- Udaleko Osoko bilkurari honen berri ematea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsua aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.



Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko, birjarpen errekurtsua tartekatuz datatik kontatzen hasita.

ALKATE-UDALBURUAK

Ana Azkoitia andreak azaldu du gaia eta ekintza planaren berri ematea burutu du.

8.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	Behin bet. aurr. Pres. def.	Baimendua Autorizado	Erabilia Dispuesto	Onart. oblig. Contraído	Ordainketa Pagado
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	19.784.401,59	13.620.624,30	12.217.506,56	10.405.973,70	10.337.661,31
	Behin bet. aurr. Pres. Def.	Onar. esk. Garb Dchos. Recs..	Bildut-garbia Recaudado	Kobr. Dagoena Pte. cobro	Itzulketak Devoluciones
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	19.784.401,59	11.245.031,05	10.184.073,15	1.060.957,90	475.945,44

8.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zortziak hogeit gutxi direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIAK

**Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021PLEN0017-Akta/Acta (AYUNTAMIENTO AZKOITIA)